


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2013





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
II.2 OSATEK, SA.....	9
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontuak eta Kontabilitatea.....	10
III.2 Langileria-gastuak.....	10
III.3 Kontratazioa.....	10
III.3.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	11
III.3.2 2013an esleitutako espedienteak.....	11
III.4 Osatek, SA.....	12
IV. URTEKO KONTUAK.....	13
IV.1 Osakidetzaren kontuak.....	13
IV.2 Osatek, SAren kontuak.....	20
ALEGAZIOAK.....	27
ABREVIATURAS.....	55
I. INTRODUCCIÓN.....	57
II. OPINIÓN.....	58
II.1 OSAKIDETZA.....	58
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	58



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2	Opinión sobre las cuentas anuales	58
II.2	OSATEK, S.A.....	59
II.2.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	59
II.2.2	Opinión sobre las cuentas anuales	59
III.	CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	60
III.1	Presupuestos y Contabilidad.....	60
III.2	Gastos de personal	60
III.3	Contratación.....	60
III.3.1	Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	61
III.3.2	Expedientes adjudicados en 2013	61
III.4	Osatek, S.A.....	62
IV.	CUENTAS ANUALES	63
IV.1	Cuentas de Osakidetza	63
IV.2	Cuentas de Osatek, S.A.	70
ANEXOS		77
A.1	Naturaleza y normativa aplicable	77
A.2	Provisiones para pensiones	78
A.3	Gastos de personal	79
A.4	Contratación e Inversiones	81
A.5	Osatek, S.A.....	85
ALEGACIONES		89

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 28a

Vitoria-Gasteiz, 28 de julio de 2015



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
IKT	Informazio eta Teknologietako Teknologiak.
SPKLTB	Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina
EAETB	Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Testu Bategina
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraiki, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2013ko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: aplikagarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Berebat, Osatek, SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, SAren urteko kontuen eta aurrekontu eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Ekonomia Kontrolerako Bulegoak egindako txostenak aztertu ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez.

Osakidetzak osasun zerbitzuak ematen ditu nortasun juridikorik ez, baina kudeaketarako autonomia duten zerbitzu-erakundearen bitartez. 2013an zehar Erakunde Zentralaz gain, beste 24 zerbitzu erakunde aritu ziren: 9 ospitale, 4 zerbitzu erakunde integratu, oinarrizko osasun-laguntzako 6 eskualde, 3 osasun mentaleko zentro, Larrialdiak eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa. Osatek, SA enpresak ere badu zerbitzu-erakunde izaera.

2012ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak abenduaren 23ko 6/2011 Legeak onartu zituen eta luzatu egin ziren 2013ko ekitaldirako (ikus A.1).



II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du. Sendagaien kasuan, gertaera hau 38,2 milioi euroan egindako erosketetan azaleratu da, guztira aztertu ditugun 57,3 milioi euroren erosketetatik. Gainerako hornigaietan 90,2 milioi euroan gauzatutako erosketak aztertu dira eta egiaztatu da horien % 89,4an, 80,7 milioi euro egin dutenak, produktu homogeneousen erosketak zatikatu egin dela (ikus A.4).

Epaitegi honen ustetan, Osakidetzak, aurreko paragrafoan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arauegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Gizarte Segurantzatik eratorritako langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere; obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea baliatzen du eta gastu modura ekitaldian ordaindutako 7,2 milioi euroak jaso ditu. Oro har onartutako kontabilitateko printzipioen arabera, pentsio osagarriek eragindako obligazioak eta antzekoak azterketa aktuarialen bidez kuantifikatu behar dira eta zorpetze printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 95 milioi euroan kuantifikatu ditu 2013ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura egin (ikus A.2).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespenaren ondorioak alde batera, Osakidetzaren Urteko Kontuek 2013ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2013ko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten dute.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 OSATEK, SA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Osatek, SAk zuzentasunez bete du 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Osatek, SAren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2013ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2013ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 685,7 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 92,3 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 15 egunean gainditu da. Bestetik, 2013ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen saldotik 26 milioi euroren zenbatekoak legeak horretarako finkatzen duen legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.

III.2 LANGILERIA-GASTUAK

Osakidetzaren egiturazko plantilla osatzen duten 25.816 lanpostuetatik aztertu ditugun 616 langile finko eta bitartekoen ordainsarrietan, honako huts hauek azaleratu ditugu:

- 105 izendapenetan ez dago erabilitako prozeduraren dokumentuzko oinarririk.
- Hogeita hamabost espedientetan zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urteko epemuga gainditu da; eta 47 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako urtebeteko epea.
- 13 kasutan nominako lanpostu funtzionala eta izendapenezkoa ez datoz bat, edo ez dira baliokideak.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien erregelamendu berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

Gainera, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak behin-behineko langileen 62 espediente aztertu ditu. 18 izendapenetan edo horien luzapenetan egin beharreko zerbitzuen eta horien izaeraren identifikazioa falta da eta ez da justifikatzen LOSEren 26.5 artikuluan aurreikusitakoei dagozkienik; honenbestez, ez da horien objektibotasuna bermatzen.

III.3 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan esleitutako 13 espedienteren lagina aztertu dugu, aldatu, luzatu edo 2013an egikaritu direnak, 101,9 milioi euroren zenbatekoan, eta 48 kontratazio espediente,



115 milioi eurorenak, ekitaldi horretan esleitutakoak. Aztertutako espedienteen zerrenda A.4 atalean xehatua dago.

III.3.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 4,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako obra espediente batean eta zerbitzuetako batean, hasierako egitaritza epea, hurrenez hurren, 10 hilabetetik 18ra eta 21etik 36 hilabetetara luzatu da; honenbestez, sektore publikoaren kontratazioan buru egiten duen funtsen erabilera eraginkorra ez da bermatu (8 eta 11 zk. espedienteak).

III.3.2 2013-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Lizitazio iragarkiak hautatutako irizpideak eta horien haztapena ezagutzeko BABara birbideratzen du, datu horiek iragarkian bertan emateko berariazko obligazioa urratuz, 18 milioi euroan esleitutako hornidurako 9 espedientetan eta zerbitzuetako 2tan (SPKLTBren 150.5 art.) (15, 16, 17, 18, 20, 23, 24, 25, 26, 32 eta 33 zk. esp.).

Berebat, guztira 53,1 milioi euroan esleitutako hornidurako 18 espedientetan lizitazio iragarkiak aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko aukera ematen du, baina ez du zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen horiek (SPKLTBren 147.2 art.) (15, 16, 17, 18, 20, 23, 24, 25, 29, 30, 31, 41, 42, 43, 44, 46, 48 eta 49 zk. esp.).

- Pleguek akatsak dituzte esleipen irizpideak balioztatu eta haztatzeko metodoak zehazterakoan zerbitzuetako 4 espedientetan, guztira 4,5 milioi euroan esleitutakoak (SPKLTBren 150. art.) (15, 16, 17 eta 18 zk. esp.).
- Pleguek esleipen hartzailea bermea eratzetik salbuesten dute horretarako justifikaziorik gabe, hornidurako 4 espedientetan, 4,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLTBren 95.1 art.) (15, 16, 17 eta 18 zk. esp.).
- Proposamenen irekiera epez kanpo egin da guztira 15,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 6 espedientetan eta zerbitzuetako batean (SPKLTBren 160.1 art.) (24, 25, 29, 30, 31, 51 eta 53 zk. esp.).
- BOEn lizitazioaren argitalpenak ez du proposamenak aurkezteko epea errespetatzen hornidura espediente batean, 1,1 milioi euroan esleitutakoa (SPKLTBren 159. art.) (53 zk. esp.).
- Guztira 9,8 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 espedientetan eta zerbitzuetako batean iragarkiak ez du kontratuaren balioetsitako balioa adierazten (SPKLTBren 142. art.) (23, 24, 25 eta 33 zk. esp.).
- Espedientean ez da jaso kontratuko baldintzen negoziazioa edo hori egiaztatuko duen dokumentazioa, SPKLTBren 168 eta 178.5 artikuluek agintzen duten moduan; betekizun hori, aurkeztu diren lehiatzaile kopurua alde batera, eskagarria da 4 zerbitzu espedientetan, 6,2 milioi euroan esleitutakoetan (SPKLTBren 109. art.) (28, 55 eta 57 zk. esp.).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Guztira 10,5 milioi euroan esleitutako 2 obra espedientetan, hornidurako 3tan eta zerbitzuetako 2tan esleipenaren ebazpena epez kanpo egin da (SPKLTBren 161. art.) (29, 30, 35, 36, 39, 53 eta 61 zk. esp.).
- Guztira 5,7 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 espedientetan esleipenaren erabakiaren aurka balizko errekursoak jartzeko legeak aurreikusten duen epea amaitu aurretik gauzatu da kontratua (SPKLTBren 156. art) (15, 16, eta 46 zk. esp.).
- Guztira 56,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 13 espedientetan eta zerbitzuetako 5etan kontratua gauzatu izanaren publikotasuna epez kanpo egiten da BOEn eta/edo ez da batere egin DOUEn (SPKLTBren 154 art) (29, 30, 38, 39, 40, 41, 42, 44, 45, 46, 48, 49, 51, 52, 53, 54, 58 eta 60 zk. esp.)

Gainera, 21 zerbitzu erakundetan guztira 2,3 milioi euroren zenbatekoan kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen erosketan Osakidetzak zatikatu egin du kontratazioaren xedea 6 zentrok gauzaturako erosketetan, 578.053 eurorenak, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeko ezarritako prozedurak. Ez-betetze hauetatik % 68 “Erabilera klinikoaren duen makineria” kontuan gertatu da (ikus A.4).

Bestetara, Osakidetzak 2013an 65,9 milioi euroren gastua erregistratu du protesi eta kirurgia inplanteen kontzeptupean; horietatik 28 milioi euro traumatologiako protesiei dagozkie eta zerbitzu erakunde bakoitzak kontratatzen ditu; horren ondorioz, hornitzaile, prezio eta artikulu ezberdinak baliatzen dira. Gomendagarria litzateke, ahal den neurrian, produktu hauen erosketa modu zentralizatuan izapidetzea, eraginkorrakoak izatearren bai ikuspuntu ekonomikotik, bai kudeaketarenetik, jada botika eta bestelako farmazia produktuekin eta osasun materialaren atal batekin egin ohi den moduan. Ildo honi jarraiki, 2014an Osakidetzaren Administrazio Kontseiluak aldakako protesiak jaso ditu hornidurako erosketa integratuen programan eta 2015ean 11,7 milioi euroren lizitazio aurrekontua duen aldakako inplanteak hornitzeko espediente bat modu zentralizatuan izapidetzen ari da.

III.4 OSATEK, SA

- 3 hilabeteko atzeraldia gertatu da kontratu baten egikaritzan kontratugileari leporagarri ez zaizkion arrazoen ondorioz eta 2010ean 12,9 milioi euroan esleitutako zerbitzu espediente batean ez da dagokion epe luzaketa gauzatu (SPKLren 197.2 art.). Halaber, 9 hilabetetan gainditu da BABAetan ezarritako harrera epea, horretarako justifikaziorik batere izan gabe (SPKLren 205.1 eta 2 art.) (1 zk. esp.) (ikus A.5).
- Osatekek aztertu egin behar lituzke aldi baterako lan kontratuak, plantillaren egiturazko beharrezan zehaztu ahal izateko. Indarrean dagoen araudiak horretarako bide ematen duenean, deitu egin behar dira horiek betetzeko hautaketa prozesuak (ikus A.5).
- Uztailearen 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2013ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 9,2 milioi euroena izan da, guztira ordaindutakoaren % 70,5 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 45 egunean gainditu da. Bestetik, 2013ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen 187.964 euroren zenbatekoak, legeak horretarako finkatzen duen legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 OSAKIDETZAREN KONTUAK-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

BALANTZEAK 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2013	2012
AKTIBOA	977.038	993.740
AKTIBO EZ ARRUNTA	977.038	993.740
Ibilgetu ukiezina.....	15.260	19.854
Aplikazio informatikoak.....	15.260	19.854
Ibilgetu materiala.....	956.448	968.438
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	748.958	725.121
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	141.218	168.088
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	66.272	75.229
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	4.352	4.352
Ondare baliabideak.....	4.352	4.352
Finantza inbertsioak epe luzera.....	978	1.096
Hirugarrenei kredituak.....	977	1.095
Bestelako aktibo finantzarioak.....	1	1
AKTIBO ARRUNTA	302.684	349.025
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		
Izakinak.....	39.303	37.536
Botikako produktuak.....	15.571	14.598
Kontsumoko osasun materiala.....	21.015	19.301
Bestelako hornidurak.....	2.717	3.637
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b.	190.750	223.877
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	3.102	2.446
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	176.946	211.044
Askotariko zordunak.....	1.104	984
Langileria.....	9.598	9.403
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	312	321
Bestelako aktibo finantzarioak.....	312	321
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	1.159	1.125
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	71.160	86.166
Diruzaintza.....	2.278	3.757
Best. aktibo likido baliokide batzuk.....	68.882	82.409
AKTIBOA GUZTIRA	1.279.722	1.342.765



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2013	2012
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	1.013.955	1.030.309
ONDARE GARBIA	1.013.955	1.030.309
BEREZKO FUNTSAK		
Funts soziala	18.235	18.110
Aurreko ekitaldietako ondorioak	26.507	15.155
Geldikina	26.507	15.192
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa	-	(37)
Ekitaldiaren emaitza	40	11.352
JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK	969.173	985.692
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	969.173	985.692
PASIBO EZ ARRUNTA	14.877	13.420
Epe luzeko hornidurak	1.881	2.159
Bestelako hornidurak	1.881	2.159
Epe luzeko zorrak	12.996	11.261
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	12.996	11.261
PASIBO ARRUNTA	250.890	299.036
Zorrak epe laburrera	15.330	32.344
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	15.330	32.344
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk	235.319	266.455
Hornitzaileak	117.294	114.090
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak	1.784	3.700
Askotariko hartzekodunak	2.662	3.228
Langileria	9.989	29.482
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin	103.590	115.955
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	241	237
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	1.279.722	1.342.765



GALERA-IRABAZIEN KONTUAK, 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK

Euroak milakotan

	2013	2012
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	2.425.175	2.417.595
Zerbitzu emakida	2.425.175	2.417.595
Hornidurak	(603.272)	(582.459)
Botika produktuen kontsumoa	(226.483)	(216.067)
Osasun materialaren kontsumoa	(235.026)	(213.342)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa	(23.212)	(35.384)
Kanpoko beste gastu batzuk	(118.592)	(117.605)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura	41	(61)
Bestelako ustiaketa sarrerak	31.439	28.466
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	29.358	26.971
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak (A.6)	2.081	1.495
Langileria-gastuak	(1.689.603)	(1.680.499)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.348.905)	(1.343.846)
Gizarte zamak	(340.698)	(336.653)
Bestelako ustiaketa gastuak	(163.103)	(171.782)
Kanpoko zerbitzuak	(156.313)	(163.805)
Tributuak	(497)	(422)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz	(2.394)	(3.294)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk	(3.899)	(4.261)
Ibilgetuaren amortizazioa	(61.637)	(61.264)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste	61.721	61.421
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza	(564)	(531)
Narriadura eta galerak	(568)	(623)
Besterenganatzeagatiko emaitzak eta bste	4	92
USTIAKETAREN EMAITZA	156	10.947
Sarrera finantzarioak	6	555
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena		
Hirugarrenena	6	555
Finantza gastuak	(122)	(149)
Hirugarrenetikiko zorreatatik	(122)	(149)
Trukaneurri aldeak	-	(1)
EMAITZA FINANTZARIOA	(116)	405
EMAITZA ZERGA AURRETIK	40	11.352
ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	40	11.352
EKITALDIAREN EMAITZA	40	11.352



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2013	2012
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	40	11.352
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	45.202	75.702
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	45.202	75.702
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(61.721)	(61.421)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(61.721)	(61.421)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(16.479)	25.633

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIZKOA, 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK

	Euroak milakotan					
	FUNTS		AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.		
	SOZIALA	GELDIKINA	EKITALD. EMAITZAK	EKITALD. EMAIT.	DOHANTZ. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
SALDO INICIAL DEL AÑO 2012	17.226	15.192		(37)	971.411	1.003.792
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	11.352	14.281	25.633
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	884	-	-	-	-	884
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-		(37)	37	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	18.110	15.192	(37)	11.352	985.692	1.030.309
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	40	(16.519)	(16.479)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	125	-	-	-	-	125
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	11.315	37	(11.352)	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	18.235	26.507	-	40	969.173	1.013.955

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA, 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK

	Euroak milakotan	
	2013	2012
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(22.088)	(10.644)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	40	11.352
Emaitzaren doiketak	(17.404)	(380)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	61.637	61.264
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	2.352	(348)
Kapital diru-laguntzen egozketa	(63.802)	(61.421)
Baja eta besterenganatzeengatiko emaitzak.....	568	531
Sarrera finantzarioak.....	(6)	(555)
Finantza gastuak.....	122	149
Trukaneurri aldeak.....	1	
Bestelako sarrerak/gastuak.....	(18.276)	
Kapital arruntean aldaketak	(4.727)	(22.141)
Izakinak	(1.725)	(516)
Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk	10.546	(975)
Beste aktibo arrunt batzuk.....	(420)	109
Hartzekod. eta ordaintz. bst. kontu batzuk	(12.854)	(20.090)
Beste pasibo arrunt batzuk	4	4
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(278)	(673)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	3	525
Interesen ordainketak	(3)	(30)
Interesen kobrantzak	6	555
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(55.572)	(83.074)
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(57.394)	(85.678)
Ibilgetu ukiezina/materiala	(55.890)	(84.143)
Bestelako aktibo finantzarioak	(1.504)	(1.535)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	1.822	2.604
Ibilgetu ukiezina/materiala	-	92
Bestelako aktibo finantzarioak	1.822	2.512
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	62.655	77.284
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	61.038	74.784
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	61.038	74.784
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	1.617	2.500
Beste zor batzuen jaulkipena	2.000	2.500
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa	(383)	
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA	(1)	77.284
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(15.006)	(16.434)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	86.166	102.600
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	71.160	86.166



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA (*)

Euroak milakotan

INBERTSIOAK/FINANTZAKETA	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu negatiboak	-	-	-	22.088	22.088	100,0
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	77.106	-	77.106	45.621	(31.485)	(40,8)
Ibilgetu ukiezina	4.670	-	4.670	2.886	(1.784)	(38,2)
Ibilgetu materiala	72.436	-	72.436	42.735	(29.701)	(41,0)
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.	3.617	-	3.617	1.504	(2.113)	(58,4)
Bestelako finantza inbertsioak	3.617	-	3.617	1.504	(2.113)	(58,4)
Finan. pasibo baliabid. jaitziera (itzulketa eta amort.)..	-	-	-	10.652	10.652	100,0
Beste zor batzuk	-	-	-	10.652	10.652	100,0
Truke tipoen bariazioen ondorioa	-	-	-	1	1	100,0
INBERTSIOAK GUZTIRA	80.723	-	80.723	79.866	(857)	(1,1)
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu positiboak	-	-	-	15.711	15.711	100,0
Transf., diru-lag., dohaint. eta jasotzeko legat.	76.222	-	76.222	45.202	(31.020)	(40,7)
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.	4.501	-	4.501	1.947	(2.554)	(56,7)
Ondare baliabideen jaulkipena	884	-	884	125	(759)	(85,8)
Bestelako finantza inbertsioak	3.617	-	3.617	1.822	(1.795)	(49,6)
Pasibo finantz. baliabideen igoera	-	-	-	2.000	2.000	100,0
Beste zor batzuk	-	-	-	2.000	2.000	100,0
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia	-	-	-	15.006	15.006	100,0
FINANTZAKETA GUZTIRA	80.723	-	80.723	79.866	(857)	(1,1)

(*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 6/2013 Zirkularraren II. Eranskinean ezarritako eredia baliatu du. Bestalde, aurrekontuaren egikaritzea Erakundearen 2013ko abenduaren 31ko Urteko Kontuetatik eskuratu da, Kontabilitate Plan Orokorren arabera formulatu direnak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

GASTUAK / SARRERA	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.	GAUZAT.		
Langileria-gastuak	1.732.892	-	1.732.892	1.689.603	(43.289)	(2,5)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	1.380.216	-	1.380.216	1.348.905	(31.311)	(2,3)
Gizarte zamak	352.676	-	352.676	340.698	(11.978)	(3,4)
Funtzionamendu gastuak.....	702.935	10.598	713.533	760.082	46.549	6,5
Hornidurak	554.028	10.598	564.626	603.272	38.646	6,8
Kanpoko zerbitzuak.....	148.556	-	148.556	156.313	7.757	5,2
Tributuak.....	351	-	351	497	146	41,6
Finantza gastuak.....	63	-	63	122	59	93,7
Hirugarrenekiko zorreatatik	63	-	63	122	59	93,7
Erak. emateko diru-lag. eta egin beharreko transf.....	4.817	-	4.817	3.899	(918)	(19,1)
GASTUAK GUZTIRA	2.440.707	10.598	2.451.305	2.453.706	2.401	0,1
Negozio zifratik zenbateko garbia	2.406.958	10.598	2.417.556	2.425.175	7.619	0,3
Zerbitzu ematea.....	2.406.958	10.598	2.417.556	2.425.175	7.619	0,3
Bestelako ustiaketa sarrerak	30.657	-	30.657	29.358	(1.299)	(4,2)
Transferentziak eta ustiap. diru-laguntzak	2.179	-	2.179	2.081	(98)	(4,5)
Sarrera finantzarioak.....	913	-	913	6	(907)	(99,3)
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena.	913	-	913	6	(907)	(99,3)
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitziera garbi..	-	-	-	(25.002)	(25.002)	(100,0)
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu negatiboak.....	-	-	-	22.088	22.088	100,0
SARRERAK GUZTIRA	2.440.707	10.598	2.451.305	2.453.706	2.401	0,1

ETORKIZUNeko KONPROMISOEN EGIKARITZA 2013-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2014	2015	2016	GAINERAKOA
EGUNGO AURREKONTUA	51.118	51.118	-	-	-
Gauzatua.....	45.590	45.590	-	-	-
Aldea.....	5.528	5.528	-	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 OSATEK, SA-REN KONTUAK

BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
AKTIBOA		2013	2012
AKTIBO EZ ARRUNTA		5.156	5.751
Ibilgetu ukiezina.....		22	46
Aplikazio informatikoak.....	22		46
Ibilgetu materiala.....		5.129	5.697
Eraikuntzak.....	840		859
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala		3.682	4.838
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	607		-
Finantza inbertsioak epe luzera.....		5	8
Hirugarrenei kredituak.....	5		8
AKTIBO ARRUNTA		8.373	10.464
Izakinak.....		194	187
Lehengaiak eta bestelako hornidurak.....	122		112
Hornitzaileei aurrerakinak.....	72		75
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b.		3.701	4.088
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	23		12
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	3.666		4.039
Langileria.....	8		18
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	4		19
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	1
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....		4.478	6.188
Diruzaintza.....	4.478		6.188
AKTIBOA GUZTIRA		13.529	16.215
BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA		10.030	10.113
Berezko funtsak.....		9.374	9.306
Kapitala.....		3.123	3.123
Eskrituran jasotako kapitala.....	3.123		3.123
Erretserbak.....		6.183	7.960
Legezko eta estatutarioak.....	672		672
Beste erretserba batzuk.....	5.511		7.288
Ekitaldiaren emaitza.....		68	(1.777)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....		656	807
PASIBO EZ ARRUNTA		255	314
Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak.....	255		314
PASIBO ARRUNTA		3.244	5.788
Epe laburreko zorra.....		25	1.981
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	25		1.981
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....		3.219	3.807
Hornitzaileak.....	603		154
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	628		574
Askotariko hartzekodunak.....	1.070		2.204
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	487		399
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	10		10
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin.....	421		466
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		13.529	16.215



ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	2013	2012
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	21.352	22.700
Zerbitzu ematea	21.352	22.700
Hornidurak	(689)	(763)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	(689)	(763)
Bestelako ustiaketa sarrerak	649	63
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	25	63
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak	624	-
Langileria-gastuak	(10.711)	(10.109)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(8.951)	(8.419)
Gizarte zamak	(1.760)	(1.690)
Bestelako ustiaketa gastuak	(9.051)	(14.343)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko best. gtu.	(9.035)	(14.322)
Tributuak	(16)	(21)
Ibilgetuaren amortizazioa	(1.559)	(1.762)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste	210	2.393
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	(148)	-
Besterenganatzeagatik emaitzak eta bste	(148)	-
Beste emaitza batzuk	9	18
USTIAKETAREN EMAITZA	62	(1.803)
Sarrera finantzarioak	6	34
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena	6	34
Hirugarrenena	6	34
Finantza gastuak	-	(8)
Hirugarrenetik zorreatatik	-	(8)
EMAITZA FINANTZARIOA	6	26
EMAITZA ZERGA AURRETIK	68	(1.777)
Mozkinen gaineko zerga	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	68	(1.777)
ETENDAKO ERAGIKETAK	-	-
Etendako eragiketetatik eratorritako ekitaldiaren emaitzak, zergarik gabe...	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	68	(1.777)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2013	2012
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	68	(1.777)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	-	2.315
Zerga ondorioa	-	(648)
ONDARE GARBIAK ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	-	1.667
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(210)	(2.393)
Zerga ondorioa	59	670
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(151)	(1.723)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(83)	(1.833)

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	ESKRITURAN JASOTAKO		AURREKO	DIRU-LAG.,		GUZTIRA
	KAPITALA	ERRETSEB.	EKITALD. EMAITZAK	EKITALD. EMAITZA	DOHANT. ETA BESTE	
2011-KO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	10.180	-	(2.220)	863	11.946
Irizpide aldaketagatiko doikuntzak, 2011	-	-	-	-	-	-
Errorengatiko doikuntzak, 2011	-	-	-	-	-	-
DOITUTAKO SALDOA, 2012-KO URTE HASIERA	3.123	10.180	-	(2.220)	863	11.946
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	(1.777)	(56)	(1.833)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	(2.220)	-	2.220	-	-
2012-KO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	7.960	-	(1.777)	807	10.113
SALDOA, 2013-KO URTE HASIERA	3.123	7.960	-	(1.777)	807	10.113
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	68	(151)	(83)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	(1.777)	-	1.777	-	-
2013-KO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	6.183	-	68	656	10.030



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2013	2012
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(602)	1.998
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	68	(1.777)
Emaitzaren doiketak	1.491	4.442
Ibilgetuaren amortizazioa.....	1.559	1.762
Diru-laguntzen egozketa.....	(210)	(2.393)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak	148	5.099
Sarrera finantzarioak.....	(6)	(34)
Finantza gastuak.....	-	8
Kapital arruntean aldaketak	(2.185)	(709)
Izakinak	(7)	(123)
Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk	370	41
Beste aktibo arrunt batzuk.....	1	1
Hartzekod. eta ordaintz. bst. kontu batzuk	(588)	(107)
Beste pasibo arrunt batzuk	(1.965)	(533)
Beste aktibo eta pasibo ez arruntak	4	12
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	24	42
Interesen ordainketak	-	(8)
Interesen kobrantzak	6	34
Kobrantzak (Ordainketak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan.....	18	16
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK.....	(602)	1.998
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(1.116)	(6.210)
Inbertsioengatik ordainketak.....	(1.116)	(6.210)
Ibilgetu ukiezina	-	(5.099)
Ibilgetu materiala.....	(1.116)	(1.111)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	-	-
Bestelako aktibo finantzarioak	-	-
Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxuak	(1.116)	(6.210)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	8	2.325
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	-	2.315
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	-	2.315
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	8	10
Beste zor batzuen jaulkipena	8	10
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa	-	-
Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxuak	8	2.325
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA	-	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(1.710)	(1.887)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	6.188	8.075
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	4.478	6.188



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITALAREN AURREKONTUA							Euroak milakotan
INBERTSIOAK	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%	
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.				
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	602	(602)	-	
INB. UKIEZIN, MATERIAL, ONIB. ETA BESTEEN IGOERA	9.164	-	9.164	1.116	8.048	% 12	
lbilgetu ukiezina.....	5.039	-	5.039	-	5.039	-	
lbilgetu materiala.....	4.125	-	4.125	1.116	3.009	% 27	
INBERTSIOAK GUZTIRA	9.164	-	9.164	1.718	7.446	% 19	

KAPITALAREN AURREKONTUA							Euroak milakotan
FINANTZAKETA	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%	
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.				
TRANSF., DIRU-LAG., DOHAIN. ETA JASOT. LEGAT.	2.437	-	2.437	-	2.437	-	
FINANTZA PASIBOKO BALIABIDEEN IGOERA	-	-	-	8	(8)	-	
Beste zor batzuk	-	-	-	8	(8)	-	
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN MURRIZKETA GARBIA	6.727	-	6.727	1.710	5.017	% 25	
FINANTZAKETA GUZTIRA	9.164	-	9.164	1.718	7.446	% 19	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
LANGILERIA GASTUAK	10.341	396	10.737	10.711	26	% 100
Soldatak, lansariak eta antzekoak	8.677	396	9.073	8.951	122	% 99
Gizarte zamak.....	1.664	-	1.664	1.760	(96)	% 106
FUNTZIONAMENDU GASTUAK	9.413	-	9.413	9.740	(327)	% 103
Hornidurak	5.443	-	5.443	689	4.754	% 13
Kanpoko zerbitzuak	3.963	-	3.963	9.035	(5.072)	% 228
Tributuak	7	-	7	16	(9)	% 228
FINANTZA GASTUAK	-	-	-	-	-	-
Hirugarrenetikiko zorreatatik.....	-	-	-	-	-	-
KOBR. KTU. IGOERA ETA ORDAIN. KNT. JAITS. GARBI	-	-	-	2.167	(2.167)	-
GASTUAK GUZTIRA	19.754	396	20.150	22.618	(2.468)	% 112

Euroak milakotan

SARRERAK	PRESUPUESTO			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	19.710	396	20.106	21.352	(1.246)	% 106
Zerbitzu ematea.....	19.710	396	20.106	21.352	(1.246)	% 106
BESTELAKO USTIAKETA SARRERAK	-	-	-	34	(34)	-
TRANSFERENTZIAK ETA USTIAP. DIRU-LAGUNTZAK	30	-	30	624	(594)	% 2.080
SARRERA FINANTZARIOAK	14	-	14	6	8	% 43
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena	14	-	14	6	8	% 43
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	602	(602)	% -
SARRERAK GUZTIRA	19.754	396	20.150	22.618	(2.468)	% 112

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2013-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2014	2015	2016	GAINERAKOA
EGUNGO AURREKONTUA	-	-	-	-	-
Gauzatua.....	5.375	5.375	-	-	-
Aldea.....	5.375	5.375	-	-	-





ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2013KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKOAK

I.- SARRERA

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2013. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziazko gaiaren inguruan erakunde horrek egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

Osakidetzako zerbitzu-erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzten produktu edo ondasun higigarrien erosketak batzuetan zatitu egin da kontratazioaren xedea, eta horrekin urratu egin da publikotasun- eta lehia-printzipioa. Sendagaien kasuan, 57,3 milioi euroren erosketak aztertu dira, eta 38,2 milioi euroren erosketetan hauteman da gorabehera hori. Gainerako hornigaien kasuan, 90,2 milioi euroaren erosketak aztertu dira, eta horien %89,4an -hau da, 80,7 milioi euroren erosketetan- produktu homogeneoen erosketak zatitu egin da (ikus A.4).

Epaitegi honen ustetan, Osakidetzak, aurreko paragrafoan aipatutako lege haustekak alde batera, zuzentasunez bete du 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardueraren arautzen duen lege arautegia.

ALEGAZIOA

ALDEZ AURREKO GOGOETAK

1. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2015eko otsailaren 27an aurkeztu zuen behin betiko txostenean esaten du errore bat dagoela datuak ateratzen dituen “txosten informatikoan” eta azaltzen du “gorabehera Osakidetzako informatika-zerbitzuei helaraziko diela, analiza eta informa dezaten”.

Farmaziako Zerbitzu Korporatiboak aurkeztutako alegazioen ondorioz ikusi zen errorea dagoela. Zerbitzu horrek ausaz detektatu zuen bi sendagaien kode nazionalak oker egozten zituztela 150 mila euro “ez-betetze” gisa. Farmaziako Zerbitzu Korporatiboak orduan esan zuen, gorabehera hori detektatu bazuen ere, ez zekiela zenbaterainokoa zen kalkulu-errorea eta izan zezakeen eragina ez-betetzearen guztizko zenbatekoan.

Horregatik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onartu badu ere ausaz detektatutako 150 mila euro horiei buruzko alegazioa (eta zenbatekoa 38.309 eurotik 38.159ra jaitsi), oraindik ere



ez dakigu zenbaterainokoa den kalkulu-errorearen tamaina eta zenbaterainoko eragina duen 38.159 mila euroko zenbateko osoaren gainean.

2. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean Epaitegiak berak kontratu txikitat jotako 57.284 euro analizatzen dira. Txostenaren ondorioa da zenbateko horretatik 13.983 eurok bazutela indarrean dagoen kontratuaren lege-babesa eta, beraz, Osakidetzaren eta laborategi esleipendunaren artean indarrean zegoen kontratu baten lege-babesean egindakoak zirela eskabideak. Kontratuz kanpoko gisa oker egotzitakoak dira, kontratua bazegoelako. Horiek ez ziren kontuan hartu behar, eta ezingo lirateke kontatu kontratu txiki gisa izapidetutakoen artean. Zenbateko hori 57.284 euroko kopuru osoaren %24 da.

2015eko ekainaren 3tik Osakidetzak martxan jarri ditu Aldabide-SAP sistema ekonomiko-finantzarioan zuzenketak egiteko neurriak, oker egindako egozpen administratibo horiek prebenitzeko eta konpontzeko.

Diferentzia hori kontuan izanda, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 43.301 mila eurotik abiatuta egin beharko luke analisisia (57.284-13.983), hau da, zenbateko askoz txikiagotik abiatuta egin beharko litzateke 24.000 eurotik gorako erosketak egin diren espezialitate farmazeutikoen analisisia (zifra horretatik aurrera jotzen baitu gorabeheratzat Kontrol Ekonomikoko Batzordeak). Azken finean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez-betetzeari 38.159 eurokoa izan dela ondorioztatzeko oinarri hartu duen abiapuntuko zifra askoz handiagoa da benetakoa baino (nahiz eta ezin daitekeen erabat zehaztu, esan liteke, proportzioan, 43.301 eurotik abiatuz gero, 28.884 euroko zifra aterako litzatekeela). I. ERANSKINEAN ematen da aipatutako 13.983 euro horiei dagozkien eskabideen zerrenda.

3. Zifra osotik, 38.159 euro horietatik, %90 –hau da, ia dena– komertzializazio eskusiboko sendagaiak dagokie. Komertzializazio eskusiboak esan nahi du sendagai jakin batek hornitzaile bakarra duela. Beraz, patologia jakin batzuk tratatzeko sendagaiak hornitzaile bakar horiei eskatu zaizkie, eta, kasu horietan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Berriro diogu eta garbi utzi nahi dugu hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaiaren prezioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen duela. Gainera, gogoan izan behar dugu, Espainian, sendagaien prezioak ez direla askeak, eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagai buruzko lineako (online) informazio-zentroa (CIMA) du bere webgunean. Bertan zehazten da, sendagai bakoitzaren titularrak nor diren, eta, beraz, azalpen hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiazta daiteke (<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>)
4. Komertzializazio eskusibokoaren artean, gastuaren zati handi bat sendagai biologikoek, ez kimikoek, sorrarazten dute; horregatik, konplexutasun tekniko handiagoa dute erabileran eta jarraipenean eta horrek baldintzatu egiten du espedientea izapidetzea. AEMPSk berak ere esaten du sendagai horiek ez direla ordezarriak eta 2009/04/24ko oharrean (II. ERANSKINEAN dago erantsita), AEMPSk adierazten du, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo direla ordeztu sendagaia emateko momentuan, nola eta sendagaia agindu duen medikuak ez duen horretarako baimena ematen espresuki. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela-eta, sendagai biologikoak komertzializatzeko



baimena Europako osasun-agentziak, EMAk, bakarrik emango du, eta ez agentzia nazionalak.

III. ERANSKINEAN ematen da alegazio hauetan aipagai diren sendagai eskusibo horien zerrenda eta, adibide gisa, CIMAtik ateratako egiaztagiri bat, sendagai batek hornitzaile bakarra duela egiaztatzen duena (ADALIMUMAB printzipio aktiboa duen sendagai bakarra HUMIRA da).

5. Txostenean aipatzen diren farmako horiek ia denak ospitalean erabiltzekoak dira, eta horrek esan nahi du konplexutasun tekniko handiko sendagaiak direla, patologia larriak direnean ematen direnak, patologia ezgaitzaileak, diagnostikatzen oso zailak, asistentzia-eskaria aurrez zehaztea ezinezkoa denean, pazienteentzako eta gero kontsumitzeko. Gainera, oso kostu handikoak izaten dira.

Zerbitzu-erakundeek erosketak kudeatzen dituzte asistentzia-premiei berehala erantzun ahal izateko moduan. Sendagaiak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuen funtzionamendurako; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espeditentea prestatu eta lizitazioa egin bitartean, konplexutasun tekniko handiko prozedura delako, zehaztaperen oso konkretuak dituzten farmazia-merkatuko kanpo-elementuek baldintzatua. Konplexutasun horri erantsi behar zaio sendagaiak, oro har, forma farmazeutiko edo galeniko desberdinetan ematen direla (konprimituak, kapsulak, disoluzioan, injektagarriak, etab.), dosifikazio desberdinetan, eszipiente, iraungitze-data, egonkortasun eta baldintza eta erabiltzeko indikazio desberdinekin. Bestalde, hornitzaileek baldintza logistiko desberdinak eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu beharrekoa izaten da.

Aldez aurretik egiten den analisi hori teknikariek egiten dute, konplexua da eta lan handikoa, eta denbora bat behar izaten da izapidetzeko. Denbora hori kontratazio-espeditentearen barruan kontatzen da, baina ez du eraginik kontratu txikiko erosketak murrizteko.

Ondorioz, kalitateko osasun-asistentzia bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da espeditenteak hasi aurretik egin behar diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehaztu ahal izateko.

ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez-betetze gisa kalifikatu dituen 38.159 mila euroetatik, 11.027 behintzat (% 29), eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen kontratu batek babestutako kodea duten sendagaienak dira. Froga gisa ematen da euskarri-dokumentazio hau:

- IV. ERANSKINA (sendagaien zerrenda, Aldabide-SAP esparru-kontratuaren zenbakia eta kontratuaren hasiera- eta amaiera-data).
- V. ERANSKINA: eskabidea egin zen egunean kontratuak indarrean zeudela bermatzen duten espeditenteen eta kontratuen zerrenda.

GAINERAKO PRODUKTUAK

ALEGAZIOA

2012ko urtarrilean OSAKAT proiektuari ekin zion Osakidetzak, materialen katalogoa definitzeko eta arazteko eta, orobat, katalogoa efizientziaz kudeatu ahal izateko antolamendu-eredua eta tresna informatikoa definitzeko. Proiektuaren lehenengo zatia 2013ko otsailaren erdi aldera amaitu zen, material sanitarioaren kode berriak Katalogo berrira migratu zirenean. Erabiltzaileek interferentziarik egin ez dezaten migrazio-lanetan, zentroei aditzera eman zitzairen 2012ko abenduaren 20tik aurrera, migrazioa osatu arte (2013ko otsailaren 8-9-10), ez zitzatela mekanizatu sistema informatikoan epealdi horretan egindako espediente-esleipenak.

Migrazioa egindakoan, kode berrien definizioan errore garrantzitsuak zeudela ikusi zen, eta horrek behartu zuen enpresa kontsultorea etengabe jardutera sortutako material-kode berriak eta erosketa-dokumentuak zuzentzen: esparru-kontratuak, entregatzeko planak, etab. Horregatik, espediente administratiboetan esleitutako material-eskabide asko Zuzeneko erosketa bidez egin ziren, esparru-kontratuari egotzi beharrean.

Errore horien ondorioz, gainera, Zuzendaritza Nagusiak ez zien ekin Administrazio Kontseiluak 2013rako onartutako espediente batzuei. Jarraian ematen da Administrazio Kontseiluak 2013rako onartuta egon arren, lizitatu eta/edo esleitu ez ziren espedienteak:

Zk.	ESPEDIENTEAREN XEDEA	OHARRAK
26	ENDOPROTESI AORTIKOAK ETA STENT BASKULARRAK	Ez zen lizitatu 2013an
31	OHEBURUKO ANALISIETAKO POCT (POINT OF CARE TESTING) ERREAKTIBOAK	Ez zen lizitatu 2013an
32	ANATOMIA PATOLOGIKOKO ERREAKTIBOAK	2012ko abuztuan lizitatu eta 2014/06/06an esleitu, hainbat errekurtsoren ondorioz
33	ANATOMIA PATOLOGIKOKO ERREAKTIBOAK (ZITOLOGIA LIKIDOA)	Ez zen lizitatu 2013an
34	ANATOMIA PATOLOGIKOKO ERREAKTIBOAK (GONGOIL ZELATARIA BULARREKO MINBIZIAN)	2013/08/26an esleitu
35	IMMUNOHEMATOLOGIAKO ERREAKTIBOAK	2012ko urrian lizitatu eta 2013/10/10ean esleitu, errekurtsoren ondorioz
41	JOSTURA MEKANIKOA	Ez zen lizitatu 2013an
42	BISTURI HARMONIKOEN TERMINALAK	Ez zen lizitatu 2013an
43	LAPAROSKOPIAKO TROKARRAK	Ez zen lizitatu 2013an
46	BALBULA KARDIAKOAK ETA PERKUTANEOAK	Ez zen lizitatu 2013an



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.- BARNE-KONTROLEKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.2 PERTSONAL-GASTUAK

- *Ez dago dokumentuetan jasota 105 izendapen egiteko erabili den prozedura.*

ALEGAZIOA

Gai hauei dagokienez, 2011. eta 2012. urteetako fiskalizazio-txostenei egindako alegazioak errepikatu nahi ditugu. Laburbilduz, alderdi hauetan zentratzen dira alegazio horiek:

- Osakidetzan, lan-eskaintza publikoen eta dagozkien deialdi publikoen bidez hornitzen dira behin betiko lanpostuak, eta zehatz-mehatz betetzen dira publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.
- Lanpostuak aldi batez betetzeko, mugigarritasunerako, zerbitzu-eginkizunetarako, aldi baterako barne-sustapenerako eta aldi baterako kontrataziorako Akordioetan onartutako irizpideei jarraitzen zaie.
- Hautaketa-prozesu guztietan, nahitaezkoa izan da lanpostu bakoitzerako ezarritako titulazio-eskakizunak betetzea.
- Osakidetzan, langileen alorrean ezarritako prozedurak direla eta, gero eta jardun gehiago egiten dira elektronikoki.

- *Denbora-mugak gainditu egin dira espediente batzuetan: zerbitzu-eginkizunetarako 2 urteko muga 35 espedientetan eta goragoko kategorietako funtzioetarako urtebeteko muga 47 espedientetan.*

ALEGAZIOA

Puntu honetan azaldu behar dugu aldi baterako eta bitartekoen izendapenen iraupenak, bai eta zerbitzu-eginkizunenak, aldi baterako barne-sustapenenak eta abarrenak ere, zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei aurre egiteko helburua dutela, kalitatezko osasun-prestazioa eta eskariari dagokiona emateko. Zerbitzuen jarduera mantentzeko behar den denborarako izaten dira izendapenak, eta horretarako ezarritako prozeduren bidez lanpostuak legez bete arte irauten dute, indarrean dagoen legedia betez.

Edonola ere, eta ZERBITZU-EGINKIZUNEN IRAUPENARI buruzko oharren inguruan, adierazi behar dugu:

55/2003 Legeak, abenduaren 16koak, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoarenak, 1. artikuluan zehazten du legearen xedea dela Osasun Sistema Nazionala osatzen duten osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioan funtzionario-harreman berezia arautzeko oinarriak ezartzea, pertsonal horren Estatutu Markoaren bitartez.



Era berean, 2. artikuluan “Aplikazio-eremua” mugatzen du, honela:

"1. Lege hau aplikatu zaio autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetako osasun-zentro eta -erakundeetan edo Estatuako Administrazio Orokorreko osasun-zentro eta -zerbitzuetan lan egiten duen pertsonal estatutarioari.

2. Lege honetan aurreikusita ez dagoenerako,... dagokion Administrazioak funtzio publikoari buruz ezarritako xedapenak eta printzipio orokorrak aplikatuko zaizkio pertsonal estatutarioari. ...”

Bestalde, 3. artikuluan ezartzen du lege horretan jasotako oinarritzko araudia garatzeko, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, osasun-zerbitzu bakoitzeko pertsonal estatutarioari aplikatu beharreko estatutuak eta gainerako arauak onartuko dituztela.

Eta Estatu Marko horrek, 39. artikuluan arautzen ditu berariaz zerbitzu-eginkizunak, honela:

"1. Zerbitzu-premiak direla eta, plaza edo lanpostu bat hutsik dagoenean edo aldi batez langilerik gabe, zerbitzu-eginkizunetan bete ahal izango du kategoria eta espezialitate horretako pertsonal estatutarioak.

Kasu horretan, interesdunak benetan betetzen duen plaza edo lanpostuari dagokion lansaria kobratuko du, lansari hori ez baldin bada langileak jatorrizko plazan duena baino txikiagoa, horrela bada, jatorrizko plazarena kobratuko baitu.

2. Pertsonal estatutarioak zerbitzu-eginkizunak egin ditzake aldi batez, plaza edo lanpostu jakin bati adskribatuta ez dauden funtzio bereziak betetzeko.

Hala denean, interesdunak bere jatorrizko plazari edo lanpostuari dagozkion lansariak jasoko ditu.

3. Zerbitzu-eginkizunetan diharduenak bere jatorrizko plaza edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea izango du.”

6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 2. artikuluan ezartzen du lege hori aplikatuko zaiola erakunde hauen zerbitzuan diharduen pertsonalari:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta horren erakunde autonomoak,
- b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia,
- c) Lan Harremanen Kontseilua,
- d) Foru-administrazioa eta tokikoa eta horien Erakunde Autonomoak
- e) Euskal Herriko Unibertsitatea, 11/1983 Lege Organikoan, abuztuaren 25ekoan, Unibertsitatea Erreformatzekoan, aurreikusitakoaren arabera, unibertsitatearen autonomia errespetatuz betiere, eta
- f) Batzar Nagusiak.

Gainera, espresuki zehazten du:



Lege hau aplikatuz, arau espezifikoak eman ahal izango dira, legea osasun, irakaskuntza eta ikerketako pertsonalaren berezitasunei egokitu ahal izateko.

Lege hau osagarria izango da bere aplikazio-eremukoak ez diren euskal Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten langile guztientzat.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak Hamabigarren xedapen gehigarrian ezartzen du:

“Pertsonal medikoaren Estatutu juridikoan, Gizarte Segurantzako osasun-erakundeetako medikuez besteko osasun-pertsonalaren Estatutuan, Gizarte Segurantzako osasun-erakundeen zerbitzura diharduen osasun-pertsonalaz bestekoaren Estatutuan, baita abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hamaseigarren Xedapen Gehigarriak dioen mediku aholkularien osasun-Kidego eta Eskaletakoan araututako Gizarte Segurantzako pertsonala ere, apirilaren 25eko 14/1986 Legean aurreikusitakoaren arabera eta honetan adierazitako printzipioen esparruan, Eusko Legebiltzarraren Legez zuzenduko da. Bien bitartean, aipatu langilego hori, lege honetako II, IV, V eta VI Tituluetan eta bakoitzari dagokion Estatutuan dauden oinarrizko xedapenetan agindutakoak zuzenduko du.

Argi dago gaur egun indargabetuta dauden Estatutu Juridikoei egiten zaizkien erreferentziak abenduaren 16ko 55/2003 Legeak onartutako osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoari egindako erreferentzia gisa ulertu behar direla, hor jasotzen baitira Osakidetzako pertsonal estatutarioari aplikatu beharreko oinarrizko xedapenak.

Are gehiago, adierazi behar dugu, edonola ere, Euskal Funtzio Publikoaren Legetik zuzenean aplikatzekoak izango liratekeen arauak II., IV., V. eta VI. tituluetan jasotakoak direla, eta horietan ez direla arautzen zerbitzu-eginkizunak, 54. artikulua baita zerbitzu-eginkizunak arautzen dituen (III. titulua, IV. kapitulua, Hirugarren atala).

Beraz, abenduaren 16ko 55/2003 Legearen, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoari buruzkoaren, 39. artikulua Osakidetzako pertsonalari zuzenean aplikatu beharreko oinarrizko araudia da eta hor ez zaio inolako denbora-mugarik ezartzen iraupenari.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean ezarritakoak izaera osagarria du, araudi espezifikoak ezer aurreikusten ez duenean bakarrik aplikatzekoa da, eta, azaldu dugun bezala, hori ez da gertatzen kasu honetan.

- *Nominako lanpostu funtzionala ez dator bat, edo ez da baliokidea, izendapeneko lanpostuarekin 13 kasutan.*

ALEGAZIOA

Puntu honi dagokionez, gaiari buruzko informazioa eskatuko zaie dagokien erakundeei, eta horren arabera egingo ditugu egin beharreko alegazioak, aurrerago aurkeztuko dugun dokumentu batean.

- Aldi baterako hainbat osagarriri (hala nola mediku-guardiak, kategoria handiagoko lanak, txandak, gaueko lana, jaiegunak, lokalizazioa eta autokontzertazioa) buruzko arau espezifikoak dauden arren, oro har, oraindik ere arau-hausteak gertatzen dira, batik bat benetan emandako zerbitzuen dokumentazio justifikatzailerik ez dagoelako eta organo eskudunek onartu ez dituztelako.

ALEGAZIOA

Lehenik eta behin, esan behar dugu txandena osagarri espezifiko bat dela, finkoa eta aldizkakoa, lanpostu bati dagokion lana txanda desberdinetan egin izana (txandakako sistema) ordaintzeko dena.

Benetan egindako zerbitzuak dokumentuekin justifikatu ez direlako eta organo eskudunek onartu ez dituztelako ez-betetzeak izan direla esaten den lansari-kontzeptu horiei dagokienez, azaldu behar da jarduera karteldegian edo txanda-planifikatzailean adierazten dela, karteldegi hori Giza Baliabideak Kudeatzeko Sisteman integratuta dagoela, eta bertan egiten dela denboren kudeaketa.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da -hau da, programatuta dagoena-, eta, bestetik, karteldegi erreal deritzon, benetan gauzatutako jarduera eta gainerako gertakariak (absentziak eta presentziak) jasotzen dira, nominan eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Ondorioz, benetan gauzatutako jarduera ordaintzen da nominan.

Zenbait bide formal zehazteko aukera kontuan har daiteke, jarduera baimentzeko eta, gero, kontsignatzeko, nominan ordaindua izan dadin; dena den, ezin dugu alde batera utzi gai honen eta beronen kudeaketaren konplexutasuna. Hala eta guztiz ere, karteldegia jarduera erreala jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute asistentzia-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta denborak kudeatzeko aipatutako tresnak ematen duen kudeaketa-sistematika ere.

Azaldutako guztiaz gain, uste dugu komeni dela aipatzea Giza Baliabideen Zuzendaritzan prozesu jakin batzuk egiten ari direla, hala nola kontrol-elementuak. Hain zuzen, 2008. urtetik, lansarien kudeaketako prozesu korporatiboak (nominak eta gizarte segurantzak) ISO 9001 2008 arauaren ziurtagiria du. Ziurtagiri horrek hiru urterako balio du. Hiru urte horietan, urtero barneko nahiz kanpoko kontu-ikuskapenak egiteko eskatzen du arauak.

Prozesu horretan definitutako adierazleak Osakidetza osoaren mailakoak eta zerbitzu-erakundeen mailakoak dira. Adierazle horiek Zuzendaritza Nagusian aztertzen dira, Batzordean eta erakunde bakoitzean. Adierazleak hiru hilabetetik behin bidaltzen zaizkie zerbitzu-erakunde batzuei, eta sei hilabetetik behin beste batzuei, aztertu eta justifikatu dituzaten eta egokitzat jotzen dituzten neurriak har ditzaten.

Zerbitzu-erakunde bakoitzean detektatzen diren gorabeherak Zuzendaritza Nagusian, batzordean eta zerbitzu-erakundeetan ere aztertzen dira, zuzentzeko eta hobekuntzak ezartzeko, berriz gerta ez daitezen.



Azken aldian adierazle hauekin egiten da lan:

1) Txanda-osagarria kobratzen dutenen zerrenda

Txosten bat definitu da nominako datuak (txanda-osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko karteldegiko lanaldien eta laneko txanden informazio mekanizatuarekin.

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Txanda-osagarria kobratzen dutenen baina txanda bakarrean lan egiten dutenen, eta, alderantziz, txanda batean baino gehiagotan lan egin arren osagarria kobratzen ez dutenen zerrenda da.

2) Ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenen zerrenda

Txosten bat definitu da nominako datuak (ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko adskripzioko dibisioaren edo antolamendu-unitatearen (ospitalea) informazioarekin.

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenen baina pertsonaleko dibisio gisa ospitalea ez dutenen, eta, alderantziz, pertsonaleko dibisio gisa ospitalea izan arren ospitalizazioko osagarria kobratzen ez dutenen zerrenda da.

3) Lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenen zerrenda

Txosten bat definitu da nominako datuak (lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko karteldegiko lanaldien eta laneko txanden informazio mekanizatuarekin (lanaldi zatituan lan egiten dutenak kode berezi batekin markatzen dira karteldegian).

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenen baina karteldegian zirkunstantzia hori jaso gabe dutenen, eta, alderantziz, goiz eta arratsaldean lan egin arren osagarri hori kobratzen ez dutenen zerrenda da.

Beraz, adierazle horien helburua da zerbitzu-erakunde bakoitzak egiaztatzea ordainketak ondo egiten ari direla, eta benetan egindako jardueragatik ordaintzen dela.

III.3 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan 101,9 milioi euroan esleitutako eta 2013an aldatu, luzatu edo egikaritutako 13 espedienteren lagina aztertu dugu, bai eta ekitaldi horretan 115 milioi euroan esleitutako 48 kontratazio-espediente ere. Aztertutako espedienteen zerrenda A.4. atalean dago xehatuta.

III.3.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Guztira 4,9 milioi euroan esleitutako obra-espediente batean eta hornidurako beste batean, hasierako egikaritze-epea, hurrenez hurren, 10 hilabetetik 18 hilabetera eta



21etik 36ra luzatu da, hurrenez hurren, eta, beraz, ez da bermatu sektore publikoaren kontratazioan nagusi den duen funtsen erabilera efizientea ez da bermatu (8 eta 11 zenbakiko espedienteak).

8 zenbakiko espedientea Obra de reforma del Bloque Quirúrgico Dr. Areilza en el H.U. Basurto - Basurtuko UOko Areilza dk. Bloke kirurgikoa erreformatzeko obrak

ALEGAZIOA

Espediente horri bi bider aldatu zaio kontratu-epea, eraikuntza-prozesuan definizio berriak sartu behar izan direlako ospitale-premia berriek eta araudi berria bete beharrak eraginda, kontuan izanda hori dena obra esleitu ondoren eta, gainera, obrak hasita zeudela gertatu dela.

Ospitale-premiei dagokienez, aldaketa handiena izan zen “Bizkorketa”ko box “guztietako” oheburuko unitate “guztiak” aldatu behar izatea. Erabateko aldaketa izan zen, boxen konfigurazioa eta banaketa aldatzera behartu zuen, eta horregatik aldaketa handiak egin behar izan ziren obra zibilaren exekuzioan eta bilakaeran eta oheburuko unitateek behar dituzten instalazio guztietan: instalazio elektrikoak, lineak, entxufeak, informatikako puntuak, informatikako lineak, gasak eta gasen instalazioak eta hodiak, argiteria eta datu-hartzeko gailuak.

Premia berriak eragindako beste aldaketa garrantzitsu bat bizkorketako boxek ondo funtzionatzeko behar diren funtsezko lanpara kirurgikoak instalatzea izan zen.

Araudi berriak behartuta egin beharreko aldaketak ere bereziak izan dira, eta eragin handia izan dute instalazio eta araudi garrantzitsuetan, hala nola:

- A. Suteen kontrako instalazioak, intzidentzia guztiekin: babesak, ate-zabalerak, kableatuak, detektagailuak.
- B. “Ahots eta Datu Sarea”ren araudia eguneratzea.
- C. Argiztapenean energia aurrezteko araudi berrira egokitzea eta luminaria guztiak Led argietara aldatzea.
- D. Garraio pneumatikoan postu berriak jarri beharko dira.
- E. Eta, azkenik, klimatizazio berria, hotz/bero parametro berriekin, hezetasun-baldintza okerrenetan gehienez ere 24° inguruko tenperaturak mantentzeko uztailetik irailera bitartean.

11 zenbakiko espedientea. Adq. e implant. pdto comercial mecan. puesto de trabajo enfermería - Erizaintzako lanpostua mekanizatzeke produktu komertzial bat eskuratu eta inplementatzea

ALEGAZIOA

Espediente horri egindako luzapenari dagokionez, esan behar dugu memorian azaltzen zirela arrazoiak, hots:

1. Osakidetzari egoztekoak diren baliabide-antolamenduaren mugek eragindako atzerapena; aplikazioa inplementatzea asko atzerarazi du horrek.
2. Osakidetzan lan egiteko moduari egokitzeko moldaketak, erizaintzako informazio-sistemak erabiltzen dagoen esperientzia zabala eta prozesuen akoplamendua kontuan izanda, eskaintako produktu komertziala egokitu egin behar izan delako erakunde osoan zabaldu aurretik.

Lehenengo puntu horri buruz, OsaNAIA aplikazioa inplementatu da, eta horrek ekarri du, informazio-sistema berri bat martxan jartzeaz gain, zainketen metodologia eta erizainek zainketa horiek aplikatzeko erabiltzen duten laneko sistematika aldatzea, OsaNAIA aplikazioaren barruan NANDA, NIC eta NOC taxonomien erabilera inplementatzean.

Metodologia horri jarraituz, protesi, dispositibo, zauri, erredura, ostomia, eskala eta konstanteekin lotuta ez dauden balorazio-datuak elkartu egin dira OsaNAIAN, NANDAK 2009-2011 edizioan ezarritako domeinuen arabera. Elkarre horren helburua da eskaintza automatizatua bideratzea NANDAren erizaintzako diagnostikoetan oinarrituta aurrekonfiguraturako zainketa-planen sistemaren bidez, diagnostikoaren eskaintza atera dadin diagnostiko horri dagokion domeinuan erregistraturako balorazio-datuetan bakarrik oinarrituta. Irizpide gisa erabili izan balira Virginia Henderson-en hamalau premiak, diagnostiko asko hainbat premiaren arabera banaturako aldagai desberdinei lotuta geratuko lirateke, eta horrek gehiegi konplikaturako luke eskaintza automatizatua eta gero profesionalak egin beharreko aukera.

NANDA, NIC eta NOC taxonomietan oinarritutako metodologia berriak ikasteko prestakuntza OsaNAIA soluzioa zabaltzen ari zen garai berean eman zaie Osakidetzako erizainei eta horrek behartu du OsaNAIA zabaltzeko prozesua sareko erizain guztien prestakuntza metodologikoari egokitzera.

III.3.2 2013AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Lizitazio-iragarkiak dio administrazio-klausula partikularren plegura jotzeko hautatutako irizpideen eta bakoitzaren haztapenaren berri jakiteko, baina informazio hori ez du jasotzen iragarkian bertan, legeak agintzen duen bezala, 18 milioi euroan esleitutako 9 hornidura-espeditetan eta 2 zerbitzu-espeditetan (SPKLTBren 150.5 artikulua): (5, 16, 17, 18, 20, 23, 24, 25, 26, 32 eta 33 zenbakiko espedienteak).

15 zenbakiko espediente G/116/20/1/1421/O301/0000/122012 Catéteres para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako kateterrak



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

16 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1438/O301/0000/122012 Drenajes, introductores y guías para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako drainatzeak, sartzaileak eta gidak

17 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1455/O301/0000/122012 Material para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako materiala

18 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0811/O301/0000/052012 Material de endoscopia - Endoskopiako materiala

ALEGAZIOA

Hornidura-espediente ireki honi hasiera eman zitzaionean, BOEn -bertako webgunearen bidez- lizitazio-iragarkiak argitaratu zirenean, oso leku gutxi zegoen testua sartzeko, eta horregatik egiten zen bidalketa Eusko Jaurlaritza/Osakidetzako kontratatzailearen profiler, han zeudelako dokumentu guztiak, bereziki baldintzen karatula, 30. puntuan irizpideak eta puntuazioa azaltzen zituena. Uste dugu kontratatzailearen profiler bideratuz emandako informazioak betetzen duela lizitatzailerikiko gardentasunaren eta informazioaren agindu legala. Hala ere, orain gorabehera hori konponduta dago eta irizpide eta azpiirizpideak eta bakoitzaren haztapena xehetasunez adierazten dira pleguetan eta iragarkietan, Oinarrietara bidalketa orokorrik egin gabe.

20 zenbakiko espedientea G/110/20/1/1468/O631/0000/122012 A.M Adquisición de material de hemodinámica para el H.Galdakao-Usansolo - Galdakao-Usansolo ospitalerako hemodinamikako materiala eskuratzeko E.A.

ALEGAZIOA

Egia da Europar Batasunaren aldizkari ofizialean (EBAO) argitaratutako iragarkian ez direla adierazten esleipen-irizpideak, eta baldintza-plegura bideratzen dela, han baitaude xehetasunez azalduta irizpideak eta balorazio-formulak. Hala ere, BOEn 2013ko urtarrilaren 17an (15. zk.) argitaratutako iragarkian 3 d) puntuan aipatzen dira, labur bada ere, irizpideak eta bakoitzaren haztapena.

23 zenbakiko espedientea G/110/20/1/1484/O621/0000/122012 Fuentes radioactivas 125i tratamiento de cáncer de próstata por medio de implantes permanentes, así como el mantenimiento y actualización de los equipos necesarios para dicha técnica braquiterápica - 125I iturri erradioaktiboak hornitzea prostatako minbizia tratatzeko inplante iraunkorren bidez, eta teknika brakiterapiko horretarako behar diren ekipamenduen mantentzea eta eguneratzea

24 zenbakiko espedientea G/112/20/1/1479/O621/0000/122012 Productos y equipos necesarios para realizar técnicas de análisis clínicos de rutina y urgencia - Errutinazko eta urgentziako analisi klinikoek teknikak egiteko produktuak eta ekipamenduak



25 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0590/O621/0000/032013 Material diverso para el servicio de endoscopia - Endoscopia zerbitzurako hainbat material.

ALEGAZIOA

SPKLTBren 150. artikuluko 5. paragrafoak agintzen du “hautatutako irizpideak eta bakoitzaren haztapena lizitazio-iragarkian adieraziko dira (...)” eta, beraz, Kontratazio Organo honen iritziz, betetzen da legearen espiritua BOEn eta EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkietan, argi adierazten delako zein dokumentu publikotara jo dezaketen interesdunek esleipen-irizpideak eta bakoitzaren haztapena ezagutzeko.

26 zenbakiko espedientea G/110/80/1/0312/O101/0000/012013 A.M Material desechable para cirugía oftálmica y cesión de equipos - Begiko kirurgiarako erabili eta botatzeko materiala, eta ekipamenduak lagatzeko E.A.

ALEGAZIOA

Lizitazio-iragarkietan espresuki azaltzen dira aplikatuko diren esleipen-irizpideak. Lizitatuak aurkeztu behar dituzten eskaintzak betetzeko egokitasuna kontuan izanda, Irizpide bakoitzaren puntuazio globala (Objektiboa eta Subjektiboa) ematen da, irizpide bakoitzaren banakapena kontratazioa arautzen duen administrazio-klausulen pleguaren karatulan ematen delako xehetasunez, eta karatula hori lizitazioan interesa duten erakunde guztien eskura dagoelako.

Erantsita doaz BOEn eta EBAOn argitaratutako iragarkien kopiak, 7-14 dokumentuetan.

32 zenbakiko espedientea G/207/20/1/0773/O221/0000/052013 Limpieza y desinfección de varios centros de salud - Hainbat osasun-zentro garbitzea eta desinfektatzea.

ALEGAZIOA

Egia da Europar Batasunaren aldizkari ofizialean (EBAO) argitaratutako iragarkian ez direla adierazten esleipen-irizpideak, eta baldintza-plegura bideratzen dela, han baitaude xehetasunez azalduta irizpideak eta balorazio-formulak. Hala ere, BOEn argitaratutako iragarkian 3 d) puntuan aipatzen dira, labur bada ere, irizpideak eta bakoitzaren haztapena.

33 zenbakiko espedientea G /207/20/1/1152/O421/0000/092012 Limpieza de los centros de salud - Osasun-zentroak garbitzea

ALEGAZIOA

BOEn argitaratutako lizitazio-iragarkian, egia da, ez dira adierazten esleipen-irizpideak. Baina aipatzen dira EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkian.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Halaber, 63,6 milioi euroan esleitutako 23 hornidura-espeditetan, lizitazio-iragarkiak adierazten du aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko aukera dagoela, baina ez du zehazten zein elementuri buruz eta zein baldintzatan aurkez daitezkeen (SPKLTBren 147.2 artikulua): (15, 16, 17, 18, 20, 23, 24, 25, 29, 30, 31, 41, 42, 43, 44, 46, 48 eta 49 espedienteak).

15 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1421/O301/0000/122012 Catéteres para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako kateterrak

16 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1438/O301/0000/122012 Drenajes, introductores y guías para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako drainatzeak, sartzaileak eta gidak

17 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1455/O301/0000/122012 Material para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako materiala

18 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0811/O301/0000/052012 Material de endoscopia - Endoskopiako materiala

ALEGAZIOA

Hornidura-espediente ireki honi hasiera eman zitzaionean, aipatzen zen aldaerak onartu ahal izango zirela, baina ez zen zehazten zein elementuri buruzko aldaerak eta zein baldintzatan aurkez zitezkeen. Ulertzen zen, oker bazen ere, prezioa oinarritzko eskaintzaren (OE) berdina izan zitekeela, edo ez, eta beste prestazio batzuk aurkeztu behar zirela, xedea aldatu gabe, beste ezaugarri batzuk eskaintzen zituztenak.

19 zenbakiko espedientea G/207/20/1/1191/O431/0000/102012 Limpieza y lavandería centros Comarca Interior - Barrualdeko Eskualdeko zentroetako garbitasuna eta arropa-garbitzea

20 zenbakiko espedientea G/110/20/1/1468/O631/0000/122012 A.M Adquisición de material de hemodinámica para el H.Galdakao-Usansolo - Galdakao-Usansolo ospitalerako hemodinamikako materiala eskuratzeko E.A.

ALEGAZIOA

Ez dago alegaziorik, dagoeneko zuzenduta dago. Akatsa konpontzeko behar ziren neurriak hartu ditu Osakidetzak.

23 zenbakiko espedientea G/110/20/1/1484/O621/0000/122012 Fuentes radioactivas 125i tratamiento de cáncer de próstata por medio de implantes permanentes, así como el mantenimiento y actualización de los equipos necesarios para dicha técnica braquiterápica - 125I iturri erradioaktiboak hornitzea prostatako minbizia tratatzeko



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

inplante iraunkorren bidez, eta teknika brakiterapiko horretarako behar diren ekipamenduen mantentzea eta eguneratzea

24 zenbakiko espedientea G/112/20/1/1479/O621/0000/122012 Productos y equipos necesarios para realizar técnicas de análisis clínicos de rutina y urgencia - Errutinazko eta urgentziako analisi klinikoen teknikak egiteko produktuak eta ekipamenduak

25 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0590/O621/0000/032013 Material diverso para el servicio de endoscopia - Endoskopia zerbitzurako hainbat material.

ALEGAZIOA

SPKLTBren 147. artikulua ezartzen duenez “Esleipenean diruaz besteko irizpideak ere kontuan izan behar direnean, kontratazio-organoak aukeran du lizitatuak aurkeztutako aldaerak edo hobekuntzak kontuan hartzea, baldin eta administrazio-klausula zehatzen pleguak berariaz horretarako aukera ematen badu”. Horrela denean, artikuluko 2. paragrafoak zehatzen du kontratuaren lizitazio-iragarkian adieraziko dela zein elementuri buruz eta zein baldintzatan aurkez daitezkeen. Madrileko Erkidegoko Kontratazio Publikoko Auzitegi Administratiboak 2012ko urtarrilaren 18an emandako 4/2012 Ebazpenean adierazten zuen: SPKLTBren 147. artikulua lizitazio-iragarkiaren edukari buruz literalki esaten duena esan arren, SPKLTBk benetan esaten duena da administrazio-klausula partikularren plegua dela aldaerak aurkezteko aukera mugatzeko leku egokia. Plegua da eskatutako prestazioaren eduki osoa eta kontratua betetzeko baldintzak arautzen dituen.

29 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0781/O661/0000/052013 Prótesis de rodillas - Belauneko protesiak

30 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0782/O661/0000/052013 Prótesis de caderas - Aldakako protesiak

31 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0289/O661/0000/012013 Material para osteosíntesis - Osteosintesisirako materiala

ALEGAZIOA

Egia da espediente horien iragarkietan ez direla zehatzen aldaera edo hobekuntzen baldintzak eta/edo elementuak, baina pleguei erreferentzia orokorra egiten zaie, eta han zehatzen dira aldaeren baldintzak, zehazki, administrazio-klausula partikularren pleguaren karatularen 28.7 puntuan; 0289/13 espedientearen karatularen 30.2 puntuan zehatzen dira hobekuntzen baldintzak, eta gainerako espedienteetan hobekuntzak ez dira esleipen-irizpide. Gorabehera hori zentroko kontu-hartzailetzak nabarmendu zuen, eta egun jada zuzenduta dago.

EBAOn oraintsu argitaratutako iragarki bat aurkezten da (2015/04/25), erakusteko, VI.3) puntuan zehatzen direla aldaera tekniko eta/edo ekonomikoen elementuak eta baldintzak (eskaintza bateratuak). Erantsita doaz, 15-19 dokumentuetan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

46 zenbakiko espedientea G/100/20/1/0300/OSC1/0000/012013 A.M Medicamentos Cinacalcet (DOE), Sevoflurano (DOE), Paricalcitol (DOE), Ritonavir (DOE), Tigeciclina(DOE),... - Zinakalzet (DOE), Seboflurano (DOE), Parikalzitol(DOE), Eritonabir (DOE), Tigeziklina(DOE)... botiken E.A.

ALEGAZIOA

Erantsitako dokumentuek egiaztatzen duten bezala, lizitazio-iragarkian adierazten da aldaerarik ez dela onartzen. 20 eta 21. dokumentu erantsiak dira.

41 zenbakiko espedientea G/100/20/1/0356/OSC1/0000/012013 A.M Imatinib (DOE) - Imatinib (DOE) E.A.

48 zenbakiko espedientea G/100/20/1/1406/OSC1/0000/122012 A.M Mifamurtida , Inmunoglobulina de conejo antitimocitos humanos, Acido zoledrónico, Dasatinib, Fentanilo - Mifamurtida, giza timozitoen aurkako untxi immunoglobulina, Azido zoledronikoa, Dasatinib, Fentanilo E.A.

49 zenbakiko espedientea G/100/20/1/0855/OSC1/0000/062013 A.M Ziprasidona (DOE), Aciclovir (DOE), Eribulina (DOE), Eltrombopag (DOE), Gefitinib (DOE), Atosiban (DOE),...- Ziprasidona (DOE), Aziklobir (DOE), Eribulina (DOE), Eltrombopag (DOE), Gefitinib (DOE), Atosiban (DOE) E.A.

ALEGAZIOA

BOE eta EBAOko iragarkian bideratzen da Preskripzio teknikoen pleguko eta Administrazio-klausula partikularren pleguko apartatueta, eta, beraz, apartatu horiek irakurrita lizitatzailleek ezagut ditzakete aldaera onartzeko ezarritako baldintzak.

Erantsitako 32-37. egiaztagirietan ikus daiteke.

42 zenbakiko espedientea G/100/20/1/1051/OSC1/0000/082012 A.M Teicoplanina, Dinoprostona, Basiliximab, Asociación de polivitamínico sin minerales para uso parenteral - Teikoplanina, Dinoprostona, Basiliximab, erabilera parenteralerako mineral gabeko polibitaminiko asoziazioa E.A.

43 zenbakiko espedientea G/100/20/1/0715/OSC1/0000/042013 A.M Cisatracurio (DOE), Remifentanilo (DOE), Piperacilina/Tazobactam (DOE), Picosulfato (DOE),... - Zisatrakurio (DOE), Remifentanil (DOE), Piperazilina/Tazobaktam (DOE), Pikosulfato (DOE),... E.A.

44 zenbakiko espedientea G/100/20/1/0469/OSC1/0000/022013 A.M Olanzapina (DOE), Clozapina (DOE), Metilprednisolona (DOE), Asociación de antirretrovirales. - Olanzapina (DOE), Klozapina (DOE), Metilprednisolona (DOE), erretrobirusen aurkako asoziazioa E.A.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Ez dago alegaziorik, dagoeneko zuzenduta dago. Akatsa konpontzeko behar ziren neurriak hartu ditu Osakidetzak.

- *Pleguek hutsuneak dituzte esleipen-irizpideen balorazio- eta haztapen-metodoak zehaztean, 4,5 milioi euroan esleitutako 4 hornidura-espeditetan (SPKLTBren 150. artikulua): 15, 16, 17 eta 18. espedienteak.*

15 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1421/O301/0000/122012 Catéteres para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako kateterrak

16 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1438/O301/0000/122012 Drenajes, introductores y guías para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako drainatzeak, sartzaileak eta gidak

17 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1455/O301/0000/122012 Material para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako materiala

18 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0811/O301/0000/052012 Material de endoscopia - Endoskopiako materiala

ALEGAZIOA

Ez dago alegaziorik. Material-hornidura horien eskaintzak baloratzeko eta aginduzko txostena egiteko, balio-judizioan oinarritutako irizpide oso orokorrak ezarri ziren. Gaur egun, ezaugarri teknikoak baloratzeko irizpideak xehatuta eta zerrendatuta ematen dira, kontratuaren xedearekin zuzenean erlazionatuta eta Eskaintza onuragarriena zein den erabakitzeko juzgu zuzena ematen laguntzeko pentsatuta.

- *Pleguek bermea eratzeko betebeharretik salbuesten dute esleipenduna, justifikaziorik eman gabe, 4,5 milioi euroan esleitutako 4 hornidura-espeditetan (SPKLTBren 95.1 artikulua): 15, 16, 17 eta 18. espedienteak.*

15 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1421/O301/0000/122012 Catéteres para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako kateterrak

16 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1438/O301/0000/122012 Drenajes, introductores y guías para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako drainatzeak, sartzaileak eta gidak

17 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1455/O301/0000/122012 Material para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako materiala

18 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0811/O301/0000/052012 Material de endoscopia - Endoskopiako materiala



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Ez dago alegaziorik. Hornidura-espeditante ireki honi hasiera eman zitzaionean, ez zen irizten berme-salbuespena justifikatu beharrik zegoenik, edo arrazoitu beharrik zegoenik, SPKLTBren 95.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, prezioa ordaindu aurretik entregatu eta hartzeko ondasun kontsumigarriak zirelako. Eginbide programak ez du aukerarik ematen salbuespena justifikatzeko, eta, beraz, ez zen jaso karatulan. Akats hori konpondu da eta gero ateratako espeditanteetan jasotzen da justifikazioa, jaso behar denean.

- *Proposamen-irekiera epez kanpo egin da 15,9 milioi euroan esleitutako 6 hornidura-espeditanteetan eta zerbitzu-espeditante batean (SPKLTBren 160.1 artikulua): 24, 25, 29, 30, 31, 51 eta 53. espeditanteak.*

24 zenbakiko espeditantea G/112/20/1/1479/O621/0000/122012 Productos y equipos necesarios para realizar técnicas de análisis clínicos de rutina y urgencia - Errutinazko eta urgentziako analisi klinikoaren teknikak egiteko produktuak eta ekipamenduak

ALEGAZIOA

Siemens Healthcare Diagnostics, S.L.k aurkeztutako eskaintza teknikoari buruz Roche Diagnostics, S.L.k 2013ko martxoaren 1ean aurkeztutako alegazio-idazkia ikusita, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen azken horri argibideak emateko errekerimendu formala egitea. Azaldutako ohiz kanpoko zirkunstantziak eta era horretako txosten tekniko bat egiteak duen konplexutasuna kontuan izanda, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza –hasieran 2013ko martxoaren 21ean 09:00etan egitekoa zena– atzeratzea 2013ko martxoaren 27ko 09:00ak arte, eta erabaki hori interesdunei jakinarazi zitzaien garaiz eta behar bezalako forman, Espeditantean jasota dagoen dokumentazioa aztertuta ikus daitekeen bezala.

25 zenbakiko espeditantea G/110/20/1/0590/O621/0000/032013 Material diverso para el servicio de endoscopia - Endoskopia zerbitzurako hainbat material.

ALEGAZIOA

Kontratazio Organoak, txosten teknikoa egin behar zuenak eskatuta, eta kontuan izanda baloratu beharreko proposamen teknikoak asko zirela, eta gainera luzeak eta konplexuak, eta guztiak xehetasunez eta behar den bermearekin aztertzeko ez zuela astirik emango hasieran aurreikusitako epean, Kontratazio Espeditante honetako proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa atzeratzea erabaki zuen. Horretarako, Kontratazio Mahaiko idazkariak pertsonalki jakitera eman zien, hasieran aurreikusitako egunaren aurretik (2014ko ekainaren 5a), formalki eta idatziz, lizitatzaile guztiei banan-banan, proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa 2014ko ekainaren 14an egingo zela.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

29 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0781/O661/0000/052013 Prótesis de rodillas - Belauneko protesiak

30 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0782/O661/0000/052013 Prótesis de caderas - Aldakako protesiak

31 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0289/O661/0000/012013 Material para osteosíntesis - Osteosintesisirako materiala

51 zenbakiko espedientea G/204/20/1/1046/OSC1/0000/082012 Mantenimiento y evolución de las aplicaciones de gestión de Osakidetza-s.v.s - Osakidetzako kudeaketako aplikazioen mantentzea eta eboluzioa

53 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0714/OSC1/0000/042012 A.M Guantes - Eskularruak hornitzeko E.A.

ALEGAZIOA

Espediente batzuetan, SPKLTBren 160.1 artikuluan ezarritako hilabeteko epea igaro ondoren ireki dira proposamen ekonomikoak. Gure iritziz, 150.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, proposamen ekonomikoak ireki aurretik, balio-judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideetan lortutako puntuazioak argitaratu behar dira. Espediente batzuetan oso zaila edo ezinezkoa da eskaintzak 160.1 artikuluan ezarritako epearen barruan ebaluatzea, dela proba iraunkorrak behar dituzten materialak direlako, dela lote asko direlako edo beste arrazoi batzuegatik. Horrelakoetan, uste dugu hobe dela proposamen ekonomikoak irekitzeko epea ez betetzea, balio-judizioaren puntuazioak argitaratu gabe egitea baino; hau da, gure iritziz, garrantzi handiagoa du prezioaren konfidentziaztasuna Legeak markatutako mugaraino gordetzeak, epe orokor bat –zenbait espedientetan hain garrantzitsua ez dena– betetzeak baino. Edonola ere, atzeratzea erabakitzen denean, behar bezala iragartzen da, lizitatzailerak guztiei jakinarazten zaie irekiera atzeratu egin dela eta noizko jarri den irekiera-data berria.

- BOEn egindako lizitazioaren iragarkiak ez du errespetatzen proposamenak aurkezteko epea 1,1 milioi euroan esleitutako hornidura-espediente batean (SPKLTBren 159. artikulua): 53. espedientea.

53 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0714/OSC1/0000/042012 A.M Guantes - Eskularruak hornitzeko E.A.

ALEGAZIOA

Honela dio SPKLTBren 159. artikulua proposamenak aurkezteko epeari buruz:

“1. Erregulazio harmonizatuko kontratuak esleitzeko prozeduretan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango berrogeita hamabi egun baino laburragoa, kontratuaren iragarkia Europako Batzordeari igortzen zaionetik kontatzen hasita. Epe hori bost egunez



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

laburtu daiteke, pleguetako eta agiri osagarrietarako irispidea bitarteko elektronikoen bitartez eskaintzen denean”.

Lege honen 141. artikuluan aipatzen den aldez aurreko iragarkia igorrita egonez gero, proposamenak aurkezteko epea laburtu eta hogeita hamasei egunekoa ezarri ahal izango da. Hori izango da arau orokorra, baina salbuespenezko kasuetan, behar bezala arrazoituz gero, gehiago ere laburtu ahal izango da, eta hogeita bi egunekoa ezarri. Epearen laburtze hori onargarria izango bada, aldez aurreko informazioaren iragarkia lizitazio-iragarkia bidaltzeko eguna baino berrogeita hamabi egun lehenago igorri beharko da argitaratzera, betiere lizitazio-iragarkia bidaltzeko eguna baino hamabi hilabete lehenagoko epearen barruan. Gainera, aldez aurreko informazioaren iragarki horretan, lizitaziorako behar den informazio guztia eskaini behar da, baldin eta emateko moduan badago.

Aurreko bi lerroketan adierazitako epeak zazpi egunez laburtu ahal izango dira, iragarkiak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bitartez prestatzen eta igortzen direnean. Epearen laburtze hori lehenbiziko lerroketaren azken tartekian aurreikusitakoari (bost egun) gehitu ahal izango zaio, hala balegokio

Prozedura hauetan, lizitazioa aurretiaz argitaratu beharko da Estatuko Aldizkari Ofizialean, betiere hurrengo paragrafoan proposamenak aurkezteko ezarritakoa bezalako aurretiaz, gutxienez.

2. Herri-administrazioen kontratu erregulazio harmonizatuko ez bestekoetan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango hamabost egun baino laburragoa, kontratuaren iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Obra-kontratueta eta herri-lanen kontzesioko kontratueta, hogeita sei egunekoa izango da epea, gutxienez”.

Beraz, lizitazio-iragarkia 2012ko maiatzaren 31n argitaratu bazen BOEn, eta eskaintzak aurkezteko epea 2012ko ekainaren 14an amaitzen bazen, aurkezteko epea ez zen 15 egunetik beherakoa, kontuan izanda lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen dela epe hori (15 egun).

Erantsitako 28 eta 29. dokumentuetan ikus daiteke.

- *Kontratuaren balio estimatua ez da zehazten 9,8 milioian esleitutako 3 hornidura-espeditetan eta zerbitzu-espediten batean (SPKLTBren 142 artikulua): 23, 24, 25 eta 33. espedienteak*

23 zenbakiko espedientea G/110/20/1/1484/O621/0000/122012 Fuentes radioactivas 125i tratamiento de cáncer de próstata por medio de implantes permanentes, así como el mantenimiento y actualización de los equipos necesarios para dicha técnica braquiterápica - 125I iturri erradioaktiboak hornitzea prostatakoko minbizia tratatzeko inplante iraunkorren bidez, eta teknika brakiterapiko horretarako behar diren ekipamenduen mantentzea eta eguneratzea



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

24 zenbakiko espedientea G/112/20/1/1479/O621/0000/122012 Productos y equipos necesarios para realizar técnicas de análisis clínicos de rutina y urgencia - Errutinazko eta urgentziako analisi klinikoen teknikak egiteko produktuak eta ekipamenduak

25 zenbakiko espedientea G/110/20/1/0590/O621/0000/032013 Material diverso para el servicio de endoscopia - Endoskopia zerbitzurako hainbat material.

Ez dago alegaziorik, dagoeneko zuzenduta dago. Akatsa konpontzeko behar ziren neurriak hartu ditu Osakidetzak.

33 zenbakiko espedientea G /207/20/1/1152/O421/0000/092012 Limpieza de los centros de salud - Osasun-zentroak garbitzea

ALEGAZIOA

EBAOko iragarkian (II.2.1 puntuan) zehazten da kontratuaren kantitatea edo hedadura globala: 1.005.733,44 euro, balio estimatuari dagokion zenbatekoa. BOEko lizitazio-iragarkian zenbateko bera zehazten da: 1.005.733,44 euro

- *Espedientean ez daude jasota kontratu-baldintzen negoziazioa eta dagozkion egiaztagiriak, SPKLTBren 168 eta 178.5 artikuluek ezartzen duten bezala, aurkeztutako lizitatuzaileen kopuruari begiratu gabe, 6,2 milioi euroan esleitutako 4 zerbitzu-espedientetan (SPKLTBren 109. artikulua): 14, 28, 55 eta 57. espedienteak.*

14 zenbakiko espedientea G/201/11/1/1280/O301/0000/112012 Mantenimiento 4 escáneres y mamógrafo digital GE Healthcare - GE Healthcare mamografo digitalaren eta 4 eskanerren mantentzea

ALEGAZIOA

Esklusiba duen zerbitzu bat da, hasierako memorian ematen da horren justifikazioa. Espezifikazio guztiak banan-banan xehatuta daude, eta ez dago negoziatorako aukerarik.

28 zenbakiko espedientea G/211/11/1/0627/O661/000/032013 Mantenimiento de los equipos de diagnóstico por imagen Siemens - Siemens irudi bidezko diagnostiko-ekipamenduen mantentzea

ALEGAZIOA

Aztertutako elementua SPKLTBren 170 D) artikuluan araututako Prozedura Negoziatuetako bat da, hau da, eskusibak behartutako prozedura negoziatua, espedientean behar bezala



justifikatua eta, beraz, lehiarako aukerarik ez dagoenez, ez du zentzu handirik negoziazio-faseak.

55 zenbakiko espedientea G/209/14/1/0968/OSC1/0000/082013 Vigilancia - Zaintza

ALEGAZIOA

Urgentzia larriz izapidetuko kontratu bat da eta lizitatzailerik bakarra izan zen, publikatedun prozedura izan arren. Zegoen presa kontuan izanda, ez zen beharrezkotzat jo negoziatzen hastea.

57 zenbakiko espedientea G/203/11/1/1387/OSC1/0000/122012 Mantenimiento y soporte de servidores Bull del backend, accesorios a ellos conectados y productos informáticos - Bull backend zerbitzariaren, horiei konektatutako gailuen eta produktu informatikoen mantentzea eta laguntza-zerbitzua

ALEGAZIOA

Esklusiba duen kontratu bat denez, zuzenean erabaki dira enpresarekin ezaugarri teknikoak eta eman beharreko zerbitzuen zenbatekoa.

Dena dela, orain negoziazioaren izapidea ere egiten da, eta dokumentu bidez jasota uzten da.

- *Etleipen-ebazpena epez kanpo egin da 10,5 milioi euroan esleitutako 2 obra-espedientetan, 3 hornidura-espedientetan eta 2 zerbitzu-espedientetan (SPKLTBren 161. artikulua): 29, 30, 35, 36, 39, 53 eta 61. espedienteak.*

29 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0781/O661/0000/052013 Prótesis de rodillas - Belauneko protesiak

30 zenbakiko espedientea G/111/20/1/0782/O661/0000/052013 Prótesis de caderas - Aldakako protesiak

35 zenbakiko espedientea G/000/11/0/0892/O101/0000/072013 Obras complementarias a la construcción nuevo edif. Consultas Externas H.U.Araba - Araba UOko Kanpo Kontsultetako Eraikin berriaren eraikuntzako obra osagarriak

36 zenbakiko espedientea G/000/20/0/1088/O361/0000/092012 Nuevo edificio de Consultas Externas del H.Zumarraga - Zumarragako ospitaleko Kanpo Kontsultetako eraikin berria

39 zenbakiko espedientea G/204/11/1/0113/OSC1/0000/012013 Mantenimiento SAP enterprise support - SAP enterprise support-en mantentzea



61 zenbakiko espedientea G/204/11/1/0948/OSC1/0000/082013 Mantenimiento licencias Oracle de Osarean y gestion de entidades - Osareaneko Oracle lizentzien mantentzea eta entitateen kudeaketa

ALEGAZIOA

SPKLTBren 161. artikuluan esleipen-ebazpena emateko ezarritako epea ez betetzeak, ez du baliogabetzen egintza, 30/1992 Legearen 63.3 artikulua xedatutakoa aplikatuz; izan ere, epe hori ez da funtsezkoa, eta duen ondorio bakarra lizitatzaleei beren eskaintzak erretiratzeko aukera ematea da.

Hala ere, kontuan izan behar da, arau orokor gisa, Administrazioak legez edo erregelamenduz ezarritako epeak ez betetzea ez dela baliogabetzailea, Epaitegi honek 2012ko azaroaren 2ko 107/2012 Ebazpenean adierazi zuen bezala:

«Alde horretatik, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 63.3 artikuluan ezartzen duenez, “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio-jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”.

Hain zuzen ere, 161. artikulua prozedura irekiko kontratuak esleitzeko ezartzen duen epea ez da funtsezkoa eta epe hori ez betetzeak ez du baliogabetzen egintza. Kasu honetan, kontratua esleitzearekin betetzen den premia administratiboa asetzeak du garrantzi handiena, horregatik lizitatzaleei ukatu gabe proposamena erretiratzeko eskubidea esleipena ezarritako epean egiten ez bada, SPKLTBren 161.4 artikuluan xedatutakoaren arabera».

- *Esleipen-erabakiaren aurka errekursoak jartzeko legeak aurreikusitako epea amaitu baino lehen formalizatu da kontratua 40,3 milioi euroan esleitutako 9 hornidura-espedientetan eta 2 zerbitzu-espedientetan (SPKLTBren 156. artikulua): 15, 16, eta 46. espedienteak.*

15 zenbakiko espedientea G/116/20/1/1421/O301/0000/122012 Catéteres para radiología intervencionista - Erradiologia interbentzionistarako kateterrak

